egin baino lehen administrazio-unitatearen edo arloko funtzionario arduradunaren txostenaren berri eduki beharko du.

3. Batzordekideen botoen gehiengoarekin hartuko dira irizpenak, eta bilerako lehendakariaren sinadura eramango dute.

4. Irizpenarekin bat ez datorren bokalak kontrako botoa jasota gera dadila eska dezake, edo boto partikularra eman dezake.

128. art.:

Informazio Batzordeek betekizun hauek dituzte:

- a) Udalbatzara eramane beharreko kudeaketa- arloko gaiei buruzko aurre- irizpena igortzea.
- b) Batzordeburuak proposatu dituen gaiei buruzko txostena eta eztabaida.
- c) Gobernuko zereginak eta dagokion arloko kudeaketa kontrolatzea batzordeburuari galderak eta interpelazioak eginaz.
- d) Dagokion arloko jarduer- ildoak eztabaidatzea.

129. art.:

Alkateak dekretuz agin dezake bi

Comisión informativa se deberá tener conocimiento por la misma del informe de la unidad administrativa o funcionario responsable del área.

3. Los dictámenes se adoptarán por mayoría de votos de los miembros de la Comisión y llevarán la firma del que presida la reunión en que se hubieren formulado.

4. El Vocal que disienta del dictamen podrá pedir que conste su voto en contra o formular voto particular.

Artº. 128:

Las Comisiones Informativas tienen las siguientes funciones:

- a) Emitir dictamen previo sobre los asuntos de su área de gestión que han de ser sometidos al Pleno de la Corporación.
- b) Informe y debate sobre temas propuestos por la Presidencia de la Comisión.
- c) Controlar las tareas de gobierno y gestión del área correspondiente mediante preguntas e interpelaciones a la Presidencia de la Comisión.
- d) Debatir las líneas de actuación del área correspondiente.

Artº. 129:

El Alcalde podrá, en relación con

batzordek edo gehiagok azterketa egin dezatela gai zehatz baten inguruan, prozeduran atzerapenik ez emateko.

130. art.:

1. Lehendakariak hogeita lau ordu lehenago gutxienez deituko ditu Informazio Batzordeak, premiazko arrazoirik ezean, jorratu beharreko gaiak jasota datozen deialdi bidez, batzordekide guztiei zuzenduta.

2. Gai-zerrendan jasota ez dauden gaiak ere jorra daitezke, batzordeburuaren edo bertaratuen gehiengoaren proposamenez.

131. art.:

1. Informazio Batzordeak baliozki eratuko dira gutxienez lehendakaria edo legez eskuordetzen duen pertsona eta bokal bat bertaratzen direnean.

2. Edonola ere, batzordeburua eta idazkaria edo legez eskuordetzen dituzten pertsonak bertan egon beharko dira.

132. art.:

1. Informazio Batzordeetako azterketak, txostenak edo kontsultak, beren eskumenen arabera, bertaratu direnen botoen gehiengo soilez erabaki ahal izango dira, bileraburuak eta idazkariak sinatu eta gero.

2. Berdinketa ematen bada, lehendakariaren botoak kalitatezko boto gisa balioko du.

un asunto determinado, decretar el estudio por dos o más Comisiones conjuntamente, a los efectos de evitar dilaciones en el procedimiento.

Artº. 130:

1. Las Comisiones Informativas serán convocadas por el Presidente al menos con veinticuatro horas de antelación, salvo razones de urgencia, mediante convocatoria en la que consten los asuntos a tratar, dirigida a todos los miembros de la Comisión.

2. También se podrán tratar asuntos no incluidos en el Orden del Día, a propuesta del Presidente de la Comisión, o de la mayoría de los presentes.

Artº. 131:

1. Las Comisiones Informativas, quedarán válidamente constituidas cuando asistan al menos el Presidente o persona que legalmente le sustituya y un vocal.

2. En todo caso será necesaria la presencia del Presidente y Secretario de las Comisiones o personas que legalmente les sustituyan.

Artº. 132:

1. Los estudios, informes o consultas dimanantes, en su caso, de las Comisiones Informativas, según sus competencias, serán resueltos por mayoría simple de votos de los miembros asistentes y firmados por quién haya presidido la reunión y el Secretario.

2. En caso de empate el voto del Presidente tendrá la condición de voto de calidad.

133. art.:

1. Informazio Batzordeen bilera bakoitzean akta igorriko da, idazkiariak sinatuta, eta jasota geratuko dira hasiera-eta amaiera-data, bertaratu direnen izena, aztertutako eta kontsultatutako gaiak, ikerketak, txostenak eta igorritako boto partikularrak, bozketen emaitza eta baita esku-hartzeen laburpena ere, hala badagokio, interesdunek formalki adierazten badute.

2. Lehendakariak eta idazkariak sinatu beharko dute akta.

3. Batzordeetako idazkariari dagokio gai-zerrenda prestatzea, Batzordeak igorritako kontsultak, azterketak eta txostenak idaztea, eta udal-bulego ezberdinek igorritako espedienteak kontrolatzea eta zaintzea.

4. Idazkariak beharrezko neurriak hartuko dituzte Batzordeetan izapidetzen diren txostenak Idazkaritza Nagusira igor daitezen, baliozko denboran, Alkateak haien berri izateko eta udalbatzen gai-zerrenda eratzeko.

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

134. art.:

1. Aurrekontuen kudeaketako eta Udal Ondarearen Kontu Orokorrak aztertu eta horien berri emate aldera, Kontuen Batzorde Berezia osatuko da.

Artº. 133:

1. De cada reunión que celebren las Comisiones Informativas, se extenderá acta, que será suscrita por el Secretario, en la que consten, fundamentalmente, la hora de iniciación y finalización, nombre de los asistentes, asuntos examinados y consultas, estudios, informes y votos particulares emitidos, con el resultado de las votaciones, así como un extracto, en su caso, de las intervenciones producidas, cuando los interesados así lo expresen formalmente.

2. El acta deberá ser firmada por el Presidente y el Secretario.

3. Corresponde al Secretario de las Comisiones preparar los asuntos del Orden del Día, redactar las consultas, estudios e informes que emite la Comisión, así como el control y custodia de los expedientes que les remitan las distintas dependencias municipales.

4. Los Secretarios adoptarán las medidas precisas para que los expedientes tramitados en las Comisiones sean remitidos a la Secretaría General, en tiempo hábil que permita su conocimiento por el Alcalde para poder proceder a la confección del Orden del Día de las sesiones plenarias.

DE LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS

Artº. 134:

1. A los efectos de analizar e informar las Cuentas Generales de gestión de los Presupuestos y las del Patrimonio Municipal, se constituirá la Comisión Especial de Cuentas.

Kontuen Batzorde Bereziaren egitekoa da jarraian aipatzen diren urteko kontuak aztertzea eta horien berri ematea:

- a) Aurrekontuaren kontu orokorra.
- b) Ondarearen administrazio-kontua.
- c) Aurrekontuaren balio independenteen eta laguntzaileen kontua.
- d) Kudeaketako udal-erakundeen kontua.

2. Kontuak Kontuen Batzorde Bereziari emango zaizkio ekainaren 1a baino lehen, eta jendaurrean jarriko dira Osoko Bilkuran aurkeztu aurretik, horien aurka erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izate aldera.

3. Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren berri emango zaio Lurralde Historikoko Administrazioari.

135. art.:

Kontuen Batzorde Berezia Ogasun Batzordeko kideek osatuko dute.

136. art.:

Funtsen Udal Kontu Hartzaileak zinegotzien eskura jarriko ditu Kontuen inguruko datuak eta informazio guztia martxoaren 1a baino lehen. Kontuak ekainaren 1a baino lehen jarriko dira jendaurrean Osoko Bilkurak onartu aurretik.

137. art.:

Funtzioko edozein unetan komenigarritzat jotzen bada Korporazioak udal-interesak babesteko neurriak hartzea,

Corresponde a la Comisión Especial de cuentas el examen, estudio e informe de las cuentas anuales siguientes:

- a) Cuenta general del Presupuesto.
- b) Cuenta de administración del Patrimonio.
- c) Cuenta de valores independientes y auxiliares del Presupuesto.
- d) Cuenta de entes u organismos municipales de gestión.

2. Las cuentas se someterán antes del 1 de junio a la Comisión Especial de Cuentas y serán objeto de información pública antes de elevarse al Pleno, a fin de que puedan formularse contra las mismas reclamaciones, reparos u observaciones.

3. Del acuerdo que adopte el Pleno se dará traslado a la Administración del Territorio Histórico.

Artº. 135:

La Comisión Especial de Cuentas estará constituida por los miembros de la Comisión de Hacienda.

Artº. 136:

Por el Interventor Municipal de Fondos se pondrá a disposición de los Concejales, antes del uno de marzo cuantos datos e información integren las Cuentas, las que deberán ser informadas antes del uno de junio, y serán sometidas a información pública antes de la aprobación por el Pleno.

Artº. 137:

Cuando en cualquier momento de su función considerase conveniente que la Corporación adopte medidas de

proposamen partikularrak egin ahal izango dizkio Osoko Bilkurari zein Alkateari.

salvaguardia de los intereses municipales, podrá formular propuestas particulares, ya sea al Pleno, ya al Alcalde.

XEDAPEN OROKORRAK

138. art.:

Administrazio-bideari amaiera ematen diote ondorengoek:

a) Osoko Bilkuraren eta Gobernu Batzordearen erabakiek eta Alkatearen ebazpenek, Legeak beste Administrazio batek ondoren onartzea eskatzen duenean izan ezik edota horren aurrean errekurtsioa jar daitekeenean, arauak ez betetzeagatik, informazioa ukatzeagatik edo eskaerak ez betetzeagatik haiek emandako eskumenak garatzerakoan.

b) Maila baxuagoko agintarien eta organoen ebazpenek Alkatearen edo beste organo baten eskuordetzan ebazpena ematen dutenean, eta horien bidez administrazio-bideari amaiera ematen zaionean.

EUSKARAREN ERABILERA

139. art.:

Euskadiko hizkuntza dena erabiltzeko eskubidea bermatzearren, bi hizkuntzatan idatziko dira ondorengoak:

Ordenantzak eta ediktuek eta egintzak oro har, haien publizitatea egiteko.

Ebazpenak eta horien jakinarazpenak, interesatuak hizkuntza hori hautatuz gero.

Autonomia Erkidego, Lurralde

DISPOSICIONES COMUNES

Artº. 138:

Ponen fin a la vía administrativa:

a) Los acuerdos del Pleno y de la Comisión de Gobierno y las resoluciones del Alcalde, salvo en los casos en que la Ley requiera la aprobación ulterior de otra Administración, o cuando proceda recurso ante ésta por incumplimiento de directrices, denegación de información o inobservancia de requerimientos en el ejercicio de competencias delegadas por aquéllas.

b) Las resoluciones de autoridades y órganos inferiores en los casos que resuelvan por delegación del Alcalde o de otro órgano cuyas resoluciones pongan fin a la vía administrativa.

DEL USO DEL EUSKERA

Artº. 139:

A fin de garantizar el ejercicio del derecho al uso de la lengua propia de Euskadi, se redactarán en bilingüe.

Las ordenanzas y los Edictos y actos en general para la publicidad de aquéllas.

Las resoluciones y la notificación de las mismas cuando el interesado elija esta lengua.

Las comunicaciones con la

Historiko eta udalerrri eta gainerako toki erakundeekiko komunikazioak.

Comunidad Autónoma, Territorios Históricos, y con los Municipios y demás Entidades Locales.

BALIABIDE PERTSONALAK GAUZATZEA

DE FORMALIZACION DE MEDIOS PERSONALES

140. art.:

Artº. 140:

1. Estatuko Gobernuak abuztuaren 2ko 30/84 Legeko hamahiru hiru artikulua arabera emandako gutxieneko eduki homogeneizatzaileen inguruko arauak jarraiki eta, hala behar izanez gero, Autonomia Erkidegoko organoek eduki horiek garatzeko emandako arauak kontuan hartuta, Alkatetzak Udal Langileen Erregistroa osatuko du, eta, bertan, nahitaez jasoko dira Udal Administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langile guztien bizitza administratiboarekin loturiko egintza guztiak.

1. Con sujeción a las normas que sobre contenidos mínimos homogeneizadores dicte el Gobierno del Estado conforme al artículo trece, 3, de la Ley 30/84, de 2 de agosto, y a las que, en su caso, dicten los órganos de la Comunidad Autónoma en desarrollo de dichos contenidos mínimos, la Alcaldía formará el Registro de Personal Municipal en el que se anotarán preceptivamente todos los actos que afecten a la vida administrativa de todo el personal al servicio de la Administración Municipal.

2. Inola ere ezingo dira nominan sartu ordainsari berriak, horiek onartu dituen ebazpen edo egintzaren berri Langileen Erregistroari aurrez eman gabe.

2. En ningún caso podrán, incluirse en nómina nuevas remuneraciones sin que previamente se haya comunicado al Registro de Personal la resolución o acto por el que hubieran sido reconocidas.

3. Langileen banako banako dokumentazioan, ez da agertuko haien arraza, erlijio edo iritziari buruzko daturik.

3. En la documentación individual del personal no figurará ningún dato relativo a su raza, religión u opinión.

Langileek beren eskura izango dute haien banako espedienteak.

El personal tendrá libre acceso a su expediente individual.

141. art.:

Artº. 141:

Urtero, aurrean aipaturiko 30/84 Legeko hogeita lau bi artikulua arabera, Korporazioak langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda ezarriko ditu Aurrekontuaren bitartez, eta, bertan, oinarritzko ordainsarien zenbatekoa ere

Anualmente, y conforme dispone el artículo veinticuatro, 2, de la Ley 30/84, antes citada, la Corporación fijará la plantilla del personal y la relación de puestos de trabajo, a través del Presupuesto, en el que, además, figurará la

agertuko da. Zenbateko hori gainerako Herri Administrazioetakoaren berdina izango da lanpostu bakoitzari esleitutako lanpostu-mailako osagarrietako eta, horien lekuan, osagarri espezifiko eta produktibitateko funtzionario-talde bakoitzarentzat.

142. art.:

1. Plantillan jasoko dira funtzionarioen, lan-kontratadun langileen eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak, eta haiei esleitutako mailak eta bakoitzaren edukia adieraziko dira, harreman hierarkikoak eta funtzionalak eta gainbegiratzeko eta ordezkatzeko ildoak ezartzearekin batera.

2. Plantilla onartzeko, aintzat hartuko dira arrazionaltasun, ekonomia eta eraginkortasunaren gaineko printzipioak.

3. Modu berezian artatuko da Udaltzaingoaren zerbitzuen plangintza, hurbileko etorkizunean, orden publikoa eta herritarren segurtasuna zaintzeko funtzioak Ertzaintzak hartze aldera, horrek nahitaezko eszedentzia edo udalerrarentzat egoera neketsuak ere izan daitezkeenak sortu gabe.

143. art.:

1. Lanpostuen zerrenda egiteko, ondorengo arauak izango dira kontuan:

- a) Postuen izena eta ezaugarriak eta horiek betetzeko eskatutako baldintzak adieraziko dira, Autonomia Erkidegoko

cuantía de las retribuciones básicas que será igual a la de las demás Administraciones Públicas para cada grupo de funcionarios de los complementos de destino asignados a cada puesto de trabajo, y de los complementos específicos y de productividad, en su caso.

Artº. 142:

1. La plantilla comprenderá todos los puestos de trabajo reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, y expresará los niveles a ellos asignados y el contenido de cada uno, fijando las relaciones jerárquicas y funcionales y las líneas de supervisión y delegación.

2. Para la aprobación de la plantilla se atenderá a los principios de racionalidad, economía y eficiencia.

3. De modo singular se atenderá a la planificación de los servicios de la Guardia Municipal a fin de que, en un futuro próximo, las funciones de vigilancia del orden público y de seguridad ciudadana puedan ser asumidos por la Policía Autónoma sin que ello provoque situaciones de excedencia forzosa u otras igualmente gravosas para el municipio.

Artº. 143:

1. Para la formación de la relación de los puestos de trabajo se observarán las siguientes normas:

- a) Se expresará la denominación y características esenciales de los puestos y los requisitos exigidos para su

Gobernuak emandako arauei jarraiki.

desempeño, con sujeción a las normas que dicte el Gobierno de la Comunidad Autónoma.

b) Behar izanez gero, izendapen askearen bitartez eta deialdi publikoarekin zein postu estaliko diren adieraziko da, aurrean aipaturiko 30/84 Legeko hogeitabi, b) artikulua ezarritakoa kontuan hartuta.

b) Se indicará, en su caso, que puestos de trabajo se deben cubrir por libre designación con convocatoria pública a los efectos de lo que establece el artículo veinte, 1, b) de la Ley 30/84, repetida.

c) Hala behar denean, behin-behineko langileentzat erreserbatutako lanpostuak zehaztuko dira.

c) Se determinará, en su caso, los puestos de trabajo reservado a personal eventual.

2. Zerrendan agertuko dira lanpostu bakoitzari dagozkion ordainsari osagarriak.

2. La relación incluirá las retribuciones complementarias que correspondan a cada puesto de trabajo.

Zerrenda publikoa izango da.

La relación será pública.

144. art.:

Artº. 144:

1. Aipatu instrumentuen edukiak ezartzeko, Korporazioa, dagozkion mugen barruan, udalerraren interesak haren zerbitzura dauden langileen interesekin bateratzen ahaleginduko da. Halaber, saiatuko da Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio guztietan langileen politika bera errazten.

1. Para la fijación de los contenidos de los instrumentos citados la Corporación, dentro de los límites que procedan, procurará conciliar los intereses del Municipio con los del personal a su servicio. Procurará, igualmente, facilitar la realización de una misma política de personal en todas las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma.

2. Horretarako, erabakiak errazago prestatzeko formulak instituzionalizatzea erraztuko du, baliozko instrumentutzat hartuta adostutako aurreakordioak edo Euskadiko Toki Administrazioen eta langileen arteko aurkezpenen borondateak gerturatzeko beste edozein adierazpen.

2. A los efectos anteriores propiciará la institucionalización de fórmulas que faciliten la preparación de los acuerdos, reconociendo como instrumentos válidos al efecto, los preacuerdos consensuados o cualesquiera otras manifestaciones de aproximación de voluntades entre las presentaciones de las

Administraciones Locales de Euskadi y de su personal.

3. Euskadiko Toki Administrazioaren ordezkapen gisa, Korporazioak Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) onartzen du eta, langileen ordezkari gisa, Zentral Sindikalak edo Legearen arabera jokatzeko duten Sindikatuak.

3. Por presentación de la Administración Local de Euskadi, la Corporación reconoce a la Asociación de Municipios Vascos - Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) y, por la de su personal, a las Centrales Sindicales o Sindicatos que procedieren con arreglo a la Ley.

UDAL-OGASUNA

DE LA HACIENDA MUNICIPAL

145. art.:

Artº. 145:

1. Korporazioak Aurrekontu bakarra onartuko du urtero. Aurrekontu horretan, zenbakitan adierazten dira, batera eta sailkatuta, urte horretako ekonomia-ekitaldian gehienez onar ditzaketan betebeharrak eta epe-muga duten edo eskuratu nahi diren eskubideak. Ekitaldi ekonomikoa bat dator urte naturalarekin.

1. La Corporación aprobará anualmente un Presupuesto único, que constituye la expresión cifrada, conjunta y sistemática de las obligaciones que, como máximo, pueden reconocer, y de los derechos con vencimiento o que se prevean realizar durante el correspondiente ejercicio económico. El ejercicio económico coincide con el año natural.

2. Aurrekontuan sartzen dira bai Korporazioarena, bai nortasun juridikoa izan eta bere menpeko diren organismoenak eta toki-enpresenak ere.

2. El presupuesto está integrado por el de la propia Corporación y los de todos los Organismos y Empresas Locales con personalidad jurídica propia pendiente de aquella.

146. art.:

Artº. 146:

1. Hasiera batean Aurrekontua onartuta, jendaurrean jarriko da aztergai Legeak ezarritako epean, interesdunek aurrekontuaren gaineko erreklamazioak egin ditzaten. Aurkeztutako erreklamazioak erabaki ondoren, Legean aurreikusi bezala, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onartutako Aurrekontuaren laburpena. 2. Baldin eta Aurrekontua kasuan kasuko ekonomia-ekitaldiko lehen

1. Aprobado inicialmente el Presupuesto se expondrá al público durante el plazo que legalmente se establezca, con objeto de que los interesados pueden interponer reclamaciones frente al mismo. Una vez resueltas las que hayan presentado, en los términos que prevea la Ley, será publicado un resumen del Presupuesto definitivamente aprobado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

eguna baino lehen onartzen ez bada, aurrekoaren indarraldia luzatuko da automatikoki.

147. art.:

1. Udal Administrazioaren kontabilitatea Kontabilitate Publikoaren erregimenaren mende geratuko da, orokorrean ezarritako kontuen planera egokituta.

2. Eragiketak egiaztatzeko, fitxak edo teknika informatikoak erabiltzeko aukera ematen duten bestelako tresnak erabili ahal izango dira.

ERREGELAMENDUAK EGITEKO
AHALA

148. art.:

1. Udalerriaren erregelamendu-ahala Ordenantza moduan gauzatuko da. Alkatetzak Bandoak eman ahal izango ditu.

2. Ordenantzen bidez, legezko mugen barruan, udalerriaren jokaera arautuko da auzo-erkidegoaren premiak eta nahiak betetzen laguntzen duten gai guztietan.

149. art.:

1. Erregelamenduak, Ordenantzak eta gainerako xedapen orokorrak egiteko, haien legezotasuna, trebetasuna eta egokitasuna bermatzen duten azterketak eta txostenak egingo dira.

2. Mozioarekin eta araudi-ekimena duen proposamenarekin batera, irizpenak, kontsultak eta araua egiteko edo

2. Si el Presupuesto no fuere aprobado antes del primer día del ejercicio económico correspondiente quedará automáticamente prorrogada la vigencia del anterior.

Artº. 147:

1. La contabilidad de la Admnsitración Municipal se someterá al régimen de la Contabilidad Pública, ajustándose al plan de cuentas que se establezcan con carácter general.

2. Para la constancia de las operaciones podrán utilizarse fichas u otros instrumentos que permitan la utilización de las técnicas informáticas.

DE LA POTESTAD
REGLAMENTARIA

Artº. 148:

1. La potestad reglamentaria del Municipio se ejercerá en forma de Ordenanzas. La Alcaldía podrá dictar Bandos.

2. Las Ordenanzas, dentro de los límites legales regularán la acción del Municipio en todas las materias que contribuyen a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal.

Artº. 149:

1. La elaboración de Reglamentos, Ordenanzas y demás disposiciones generales se iniciará con los estudios e informes que garanticen la legalidad, el acierto y la oportunidad de aquellas.

2. Se conservarán, junto con la moción o propuesta de quien tenga la iniciativa normativa, los dictámenes,

interpretazioa errazteko prozesua ezagutzeko interesa eskaintzen duten datu eta dokumentu guztiak kontserbatuko dira.

3. Arauaren proiektuarekin batera jasoko da gai beraren inguruko aurreko xedapenen edo xedapenen inguruko eta erabat edo partzialki indargabetuta geratutakoen gaineko txostena.

4. Idazkariak legezkontasunaren berri emango du, 1 zenbakidunaren arabera egindako txostenarekiko adostasuna besterik adieraz badezake ere, letratuak sinatua izanez gero.

5. Onartzeko eta aldatzeko, ondorengo prozedura jarraituko da:

- a) Osoko Bilkurak hasierako onarpena ematea.
- b) Gutxienez hogeita hamar egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Interesdunen entzunaldia zuzenean egin daiteke edota Legeak onartutako erakunde eta elkarten bidez, xedapenak ukitzen dituen.

- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.

consultas y cuantos datos y documentos ofrezcan interés para conocer el proceso de elaboración de la norma o puedan facilitar su interpretación.

3. Se acompañará al proyecto de norma informe sobre la o las disposiciones anteriores sobre la misma materia y sobre las que han de quedar total o parcialmente derogadas.

4. El Secretario informará sobre la legalidad, si bien puede limitarse a manifestar su conformidad con el informe que se hubiere emitido conforme al número 1, si fuere suscrito por letrado.

5. La aprobación y modificación se ajustará al siguiente procedimiento:

- a) Aprobación inicial por el Pleno.
- b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

La audiencia de los interesados puede realizarse directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la Ley a quienes afecta la disposición.

- c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.

150. art.:

1. Alkateak orokorrean aplikatzeko Bandoak eman ahal izango ditu, eta zaintzeko eta gobernu ona eskaintzeko izango dira, udal-erkidegoaren bizitza hobeto ordenatzearen.

2. Bandoak aldizkakoak izan daitezke, aurrez adierazitako egunetan argitaratzen badira eta indarrean diren xedapen orokorrak betetzea gogorarazteko egiten badira; aldiz, larrialdikoak izango dira, bat-bateko egoerei aurre egiteko ematen badira.

3. Era berean, Alkateak iragarri ahal izango ditu goiko erakundeek emandako xedapenak, eta, kasu horretan, hori zein agintaritzak eman duen agertuko da jakinarazpenean.

4. Bandoak orri bakar batean inprimatuko dira eta ohiko lekuetan jarriko dira, herritar guztiek ezagutu ditzaten; halaber, informazio orokorreko egunkarietan zabalduko dira, eta, nolahi ere, ediktuen taulan argitaratuko dira.

**UDALETXEAREN BARRUKO
DIZIPLINA ETA ORDENA**

151. art.:

Alkatea, udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzeko eskumenen barruan, Udaletxeko Ekitaldien Aretoan eta bulego guztietan ordena izateaz arduratuko da.

152. art.:

1. Lehendakaria aretoan ordena

Artº. 150:

1. El Alcalde podrá dictar Bando de aplicación general, que serán de policía y de buen gobierno, para mejor ordenar la vida de la comunidad municipal.

2. Los Bando podrán ser periódicos, si se publican en fechas ya señaladas de antemano, y sirven de mero recordatorio para el cumplimiento de disposiciones vigentes de carácter general, y de urgencia, si se dictan para hacer frente a situaciones imprevisibles.

3. Asimismo, el Alcalde podrá dar publicidad a disposiciones dictadas por organismos superiores, en cuyo caso se hará constar en la comunicación del mismo la autoridad de que procede.

4. Los Bando se imprimirán en una sólo hoja y se fijarán en los lugares habituales, para que puedan ser conocidos por todos los ciudadanos; se facilitarán a los periódicos de información general y se publicarán, en todo caso, en el tablón de edictos.

**DE LA DISCIPLINA Y ORDEN
DENTRO DE LA CASA
CONSISTORIAL**

Artº. 151:

El Alcalde en el ejercicio de sus atribuciones de dirección del gobierno y administración municipal, velará por el mantenimiento del orden en el Salón de actos de la Casa Consistorial y en todas sus dependencias.

Artº. 152:

1. El Presidente velará en las

izateaz arduratuko da saio publikoetan.

2. Publikoan dagoen jendeak adostasuna edo desadostasuna agertzen badu ordena kaltetuaz edo behar den gizalegea izan gabe, berehala bidaliko da Udaletxetik Lehendakartzak hala adierazita, eta, komenigarritzat jotzen badu, Udaltzaingoak dagozkion diligentziak egitea aginduko du, ekintza horiekin delitua edo hutsegitea burutu bada.

HERRITARREN INFORMAZIOA **ETA PARTE-HARTZEA**

153. art.:

1. Osoko Bilkuraren bilkurak publikoak dira, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2. Publikoak izan daitezke Erregelamendu honetan aipatzen diren gainerako organo osagarrien bilkurak, legediak eta horiek eraentzen dituzten erregelamendu edo Osoko Bilkuraren erabakiek aurreikusitako baldintzetan.

154. art.:

1. 7/1985 Legeko 72. artikuluan aipatzen diren elkarte edo erakunderen batek Osoko Bilkuran azalpen bat eman nahi duenean gai-zerrendako punturen baten inguruan, aurretiko administrazio-izapidean interesatu bezala esku hartu duelako, Alkateari horretarako eskaera egin beharko dio bilkura hasi aurretik. Era horretan, Alkatearen baimenarekin eta ordezkari bakar baten bidez, iritzia eman ahal izango du Alkateak adierazitako denboran, gai-zerrendan sartutako

sesiones públicas por el mantenimiento del orden de la sala.

2. Quienes del público dieren muestras de aprobación o desaprobación, perturbando el orden o faltando a la debida compostura, serán inmediatamente expulsados de la Casa Consistorial por indicación de la Presidencia, ordenando cuando lo estime conveniente, que la policía municipal de servicio levante las oportunas diligencias por si los actos producidos pudieran ser constitutivos de delito o falta.

INFORMACION Y PARTICIPACIÓN **CIUDADANA**

Artº. 153:

1. Las sesiones del Pleno son públicas, salvo en los casos previstos en el artículo 70.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

2. Podrán ser públicas las sesiones de los demás órganos complementarios a que se refiere el presente Reglamento, en los términos que prevea la legislación y las reglamentaciones o acuerdos plenarios por los que se rijan.

Artº. 154:

1. Cuando alguna de las asociaciones o entidades a que se refiere el artículo 72 de la Ley 7/1985 desee efectuar una exposición ante el Pleno, en relación con algún punto del orden del día en cuya previa tramitación administrativa hubiese intervenido como interesado, deberá solicitarlo al Alcalde antes de comenzar la sesión. Con la autorización de éste y a través de un único representante, podrá exponer su parecer durante el tiempo que señale el Alcalde,

proposamena irakurri, eztabaidatu eta bozkatu aurretik.

2. Osoko Bilkuraren bilkura amaituta, Alkateak galderak eta eskeak egiteko txanda eman ahal izango die bilkurara joandakoei udal-interesa duten gai zehatzen inguruan. Alkateak txanda ordenatu eta itxi beharko du.

155. art.:

1. Osoko Bilkuraren bilkuren deialdiak eta gai-zerrendak herriko komunikabide sozialetara banatuko dira, Udaletxeko iragarkien taulan jartzearekin batera.

2. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Udalak Osoko Bilkuraren bilkuren eta Osoko Bilkurak eta Gobernu Batzordeak hartutako erabaki guztien edukia laburtuta emango du.

Horretarako, baliabide hauek erabiliko dira: 1) Gutxienez hiru hilabetetik behin Udalaren informazio-aldizkaria argitaratuko da; 2) Udaletxeko Iragarkien Taulan jarriko dira; 3) Udalerrri-mailako komunikabide sozialetan argitaratuko dira.

156. art.:

1. Udalaren administrazio-antolakuntzan, Informazio Bulegoa izango da aurreko artikuluan aipaturiko publizitatearekin lotutako jarduera guztia nahiz Udalak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 69.1 artikuluari jarraiki, emandako gainerako informazioa bideratzeko.

con anterioridad a la lectura, debate y votación de la propuesta incluida en el orden del día.

2. Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de ruegos y preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este turno.

Artº. 155:

1. Las convocatorias y órdenes del día de las sesiones del Pleno se transmitirán a los medios de comunicación social de la localidad y se harán públicas en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, el Ayuntamiento dará publicidad resumida del contenido de las sesiones plenarias y de todos los acuerdos del Pleno y de la Comisión de Gobierno.

A tal efecto se utilizarán los siguientes medios: 1) Edición, con una periodicidad mínima trimestral, de un boletín informativo municipal; 2) Exposición en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento; 3) Publicación en los medios de comunicación social de ámbito municipal.

Artº. 156:

1. Existirá en la organización administrativa del Ayuntamiento una Oficina de Información que canalizará toda la actividad relacionada con la publicidad a que se refiere el artículo anterior, así como el resto de la información que el Ayuntamiento proporcione en virtud de lo dispuesto en el

artículo 69.1 de la Ley 7/1985 de 2 de abril.

Udalaren erabakien edo horien aurrekarien kopiak eta egiaztapen-ziurtagiriak lortzeko eta artxiboetan nahiz erregistroetan kontsultak egiteko, eskaera egin beharko zaio eskatzaileak eskatutako informazioa ahalik eta epe laburrenean lortzeko beharrezko kudeaketak ofizioz egingo dituenari, horrekin udal-zerbitzuen zereginak inola ere eragotzi gabe.

La obtención de copias y certificaciones acreditativas de acuerdos municipales o antecedentes de los mismos, así como la consulta a archivos y registros, se solicitarán a la que, de oficio, realizará las gestiones que sean precisas para que el solicitante obtenga la información requerida en el plazo más breve posible y sin que ello suponga entorpecimiento de las tareas de los servicios municipales.

Informazio Bulegoa modu deskontzentratuan egituratu ahal izango da, funtzioa eraginkorra izateko horrela behar bada.

La Oficina de Información podrá estructurarse de forma desconcentrada si así lo exige la eficacia de su función.

2. Informazioaren eskaerak arrazoitu egin beharko dira, erabakien edo ebazpenen ziurtagiriak lortzeko ez bada; kasu horretan, horiek lortu ahal izango dira dagokien tasa ordainduta.

2. Las peticiones de información deberán ser razonadas, salvo que se refieran a la obtención de certificaciones de acuerdos o resoluciones, que en todo caso podrán ser obtenidas mediante el abono de la tasa correspondiente.

157. art.:

Artº. 157:

1. Bizilagunek Udaleko edozein organori Udalaren argibideak edo jarduerak eskatzeko eskaerak idatziz egin beharko dira nahitaez, eta administrazio-prozedurari buruzko legedian aurreikusitako baldintzen arabera erantzungo dira.

1. Las solicitudes que dirijan los vecinos a cualquier órgano del Ayuntamiento en petición de aclaraciones o actuaciones municipales, se cursarán necesariamente por escrito, y serán contestadas en los términos previstos en la legislación sobre procedimiento administrativo.

2. Eskaeran beste Administrazio batzuen eskumeneko gaiak edo beste organo bati dagozkionak aipatzen badira, hartzaileak dagozkionari zuzenduzko dizkio, horren berri eskatzaileari ematearekin batera.

2. En el caso de que la solicitud haga referencia a cuestiones de la competencia de otras Administraciones o atribuidas a órgano distinto, el destinatario de las mismas la dirigirá a quien corresponda, dando cuenta de tal extremo al peticionario.

3. Eskameran udal-jardueraren inguruko eskaria egiten bada, hartzaileak eskatzaileari egin beharreko izapidearen berri emango dio. Eskamera udal-organo kolegiaturen batean jorratzera iristen bada, hango idazkariak bilkuraren aktan dagokion zatiaren kopia bidaliko dio gehienez 15 eguneko epean eskatzaileari.

Era berean, organo kolegiatuaren lehendakariak eskaera egin duenari bilerara joateko eskatu ahal izango dio gaia azaldu eta defenda dezan.

158. art.:

Bizilagunei oro har udal-informazioa eskuratzeko onartua duten eskubide orokorra alde batera utzi gabe, aurreko artikuluetan aipatutako erakundeek, honako eskubide hauek izango dituzte, betiere berariaz eskatzen badute:

a) Helbide sozialean jasotzea bilkura publikoak egiten dituzten udal-organo kolegiatuen deialdiak, gaitzerrendan erakundearen helburu sozialarekin lotutako gaiak agertzen badira. Baldintza eta modu berean jasoko dituzte udal-organoek hartutako ebazpenak eta erabakiak.

b) Udalak argitaratutako argitalpenak, tartekakoak ala ez, jasotzea, erakundearentzat betiere interesgarriak badira, helbide soziala kontuan hartuta.

159. art.:

Elkartek, orokorrek edo

3. Cuando la solicitud formule una petición de actuación municipal, su destinatario informará al solicitante del trámite que se le haya de dar. Si la petición llega a tratarse en algún órgano colegiado municipal, quien actúe de Secretario del mismo remitirá en el plazo máximo de 15 días al peticionario copia de la parte correspondiente del acta de la sesión.

Asimismo, el Presidente del órgano colegiado podrá requerir la presencia del autor de la petición de la sesión que corresponda a los efectos de explicarla y defenderla por si mismo.

Artº. 158:

Sin perjuicio del derecho general de acceso de la información municipal reconocido a los vecinos en general, las entidades a que se refieren los artículos anteriores disfrutarán, siempre que lo soliciten expresamente, de los siguientes derechos:

a) Recibir en su domicilio social las convocatorias de los órganos colegiados municipales que celebran sesiones públicas, cuando en el orden del día figuren cuestiones relacionadas con el objeto social de la entidad. En los mismos supuestos recibirán las resoluciones y acuerdos adoptados por los órganos municipales.

b) Recibir las publicaciones, periódicas o no, que edite el Ayuntamiento, siempre que resulten de interés para la entidad, atendido su objeto social.

Artº. 159:

Las asociaciones, generales o

sektorialek, herritarrek Kontseilu sektorialetan, kudeaketa deskontzentratuko organo kolegiatuetan eta eraentzen dituzten udal-zerbitzuen kudeaketa deszentralizatuko erakundeen organo kolegiatuetan parte-hartzea bideratuko dute, aplikatu daitezkeen legediak baimentzen duen neurrian, eta horietan aurreikusitako baldintzen arabera burutuko da.

Nola nahi ere, parte-hartze maila zehazte aldera, kontuan izango dira helburu sozialaren espezializazio sektoriala nahiz ordezkatzeko.

Hasiera batean, elkarte horien parte-hartzea soilik onartuko da eztabaida-organotik edo organo aholku-emaileekin lotuta, ordezkariak erabakitzeko organoetan sartzea Legeak baimentzen duen kasuetan izan ezik.

160. art.:

1. Erregelamendu honetako 189, 190, 191 eta 192 artikuluetan bizilagunen interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko elkarteei onartutako eskubideak soilik gauzatu ahal izango dituzte Herritarren Erakundeek Udala Erregistroan inskribatuta aurkitzen direnek.

2. Erregistroaren helburua da Udalari aukera ematea udalerrian zenbat erakunde dauden eta haien helburuak eta ordezkaritza zeintzuk diren jakiteko, bizilagunen arteko asoziazionismoa sustatzeko behar bezalako udal-politika egite aldera. Hortaz, Elkarteek Erregistro Orokorretik independentea da, baina han ere guztiak inskribatuta egon behar dute.

sectoriales, canalizarán la participación de los vecinos en los Consejos sectoriales, en los órganos colegiados de gestión desconcentrada y en los órganos colegiados de los entes de gestión descentralizada de servicios municipales por los que se rijan y, en su caso, en la medida en que lo permita la legislación aplicable, y se llevará a cabo en los términos y con el alcance previstos en los mismos.

En todo caso, se tendrán en cuenta, a efectos de determinar el grado de participación la especialización sectorial de su objetivo social así como su representatividad.

En principio, la participación de estas asociaciones sólo se admitirá en relación con órganos deliberantes o consultivos, salvo en los casos en que la Ley autorice la integración de sus representantes en órganos decisorios.

Artº. 160:

1. Los derechos reconocidos a las asociaciones para la defensa de los intereses generales o sectoriales de los vecinos en los artículos 189, 190, 191 y 192 de este Reglamento sólo serán ejercitables por aquéllas que se encuentren inscritas en el Registro Municipal de Entidades Ciudadanas.

2. El Registro tiene por objeto permitir al Ayuntamiento conocer el número de entidades existentes en el municipio, sus fines y su representatividad, a los efectos de posibilitar una correcta política municipal de fomento del asociacionismo vecinal. Por tanto, es independiente del Registro General de Asociaciones en el que asimismo deben figurar inscritas todas

ellas.

3. Herritarren Erakundeen Udal Erregistroan izena eman ahal izango dute udalerriko bizilagunen interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko, sustatzeko edo hobetzeko helburua duten guztiek eta, bereziki, honako hauek: auzo edo barruti bateko herritarren erakundeak, ikasleen guraso elkarteak, kultur eta kirol elkarteak, aisiarako elkarteak, gazteen elkarteak, sindikatu-erakundeak, enpresa-elkarteak, elkarte profesionalak eta beste edozein antzekoak.

4. Erregistroa Korporazioaren Idazkaritza Nagusian egingo da, eta datuak publikoak izango dira. Inskripzioak egiteko eskaera egin beharko dute erakunde interesatuek, ondorengo datuak aurkeztearekin batera.

- a) Erakundearen estatutuak.
- b) Erakundeen Erregistro Orokorrean eta beste Erregistro Publikoetan duten inskripzio-zenbakia.
- c) Zuzendaritza-karguan dauden pertsonen izenak.
- d) Helbide soziala.
- e) Uneko urteko aurrekontua.
- f) Uneko urteko jardueraprograma.
- g) Bazkide-kopuruaren ziurtagiria.

Inskripzioa egiteko eskaera egin eta handik 15 eguneko epean, hasiera batean eman gabeko dokumentazioa emateko epea eteten ez bada, Udalak inskripzio-zenbakia emango dio Erakundeari, eta une horretatik aurrera altan izango da ondorio guztietarako.

3. Podrán obtener la inscripción en el Registro Municipal de Entidades Ciudadanas todas aquellas cuyo objeto sea la defensa fomento o mejora de los intereses generales o sectoriales de los vecinos del municipio y, en particular, las Entidades Ciudadanas de un barrio o distrito, las de padres de alumnos las entidades culturales, deportivas, recreativas, juveniles, sindicales, empresariales, profesionales y cualquier otra similar.

4. El Registro se llevará en la Secretaría General de la Corporación y sus datos serán públicos. Las inscripciones se realizarán a solicitud de las entidades interesadas, que habrán de aportar los siguientes datos:

- a) Estatutos de la Entidad.
- b) Número de inscripción en el Registro General de Entidades y en otros Registros Públicos.
- c) Nombre de las personas que ocupen los cargos directivos.
- d) Domicilio social.
- e) Presupuesto del año en curso.
- f) Programa de actividades del año en curso.
- g) Certificación del número de socios.

En el plazo de 15 días desde la solicitud de inscripción, y salvo que éste hubiera de interrumpirse por la necesidad de aportar documentación no incluida inicialmente, el Ayuntamiento notificará a la Entidad su número de inscripción y a partir de ese momento se considerará de alta a todos los efectos.

Izena emandako Erakundeek, datuak aldatu beharra gertatuz gero, Erregistroari eman behar diote aldaketa horien guztien berri, aldaketak egin eta hurrengo hilabetearen barruan. Urteko aurrekontua eta jarduera-programa urte bakoitzeko urtarrilean jakinaraziko dira.

Betebehar horiek betetzen ez badira, Udalak Erregistroan baja eman ahal izango dio elkarteari.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA:

Udalak funtzioen eta zerbitzuen funtsezko araubidearen inguruko Ordenantzak eta ondarearen araubideak arautzen dituztenak berrikusiko ditu.

BIGARRENA:

Erregelamendu honetan zentsura-mozioaren inguruan ezarritakoa ez da aplikatuko harik eta tokiko lehen hauteskundeak egin arte Erregelamendu hau indarrean sartzen denetik aurrera.

HIRUGARRENA:

Udalak sailkatuko ditu kontratatutako administrazio-langileek azken apirilaren 24 arte betetako funtzioak, eta, kasuen arabera, funtzionario publikoek edo lan-kontratadun finkoek edo aldi baterako lan-kontratadunek bete beharreko postuak zehaztuko ditu.

Sailkapen horren ondorioz plantillan aldaketak egitea komeni baldin bada, dagozkion erabakiak hartuko dira,

Las Entidades inscritas están obligadas a notificar al Registro toda modificación de los datos dentro del mes siguientes al que se produzca. El presupuesto y el programa anual de actividades se comunicarán en el mes de enero de cada año.

El incumplimiento de estas obligaciones dará lugar a que el Ayuntamiento pueda dar de baja a la asociación en el Registro.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

PRIMERA:

El Ayuntamiento procederá a revisar sus Ordenanzas relativas al régimen sustantivo de las funciones y servicios y las reguladoras del régimen de sus bienes.

SEGUNDA:

Lo establecido en este Reglamento en cuanto a la moción de censura no será de aplicación hasta que se hayan celebrado las primeras elecciones locales a partir de la entrada en vigor de Reglamento.

TERCERA:

El Ayuntamiento procederá a clasificar las funciones desempeñadas hasta el 24 de abril último por el personal contratado administrativo, determinándose, según los casos, los puestos a desempeñar por funcionarios públicos o por personal laboral fijo o temporal.

Si como resultado de dicha clasificación se estimare conveniente introducir modificaciones en la plantilla,

eta 143.3 artikuluan Udaltzaingoaren Zerbitzuaren gainean agertzen diren zuhurtasunak errepikatu beharko dira.

LAUGARRENA:

1. Udaleko zerbitzu administratiboaren egitura eta antolakuntza orokorrean Alkateak erabaki beharko du, Gobernu Batzordearen aholkularitzarekin.

Hala ere, Osoko Bilkurak 7/1985 Legeko 22 eta 47 artikuluek emandako eskuduntzak ditu, bai organo deskontzentratuak sortzeko, bai Zerbitzuak kudeatzeko moduak onartzeko, baita horietako bakoitza arautzen duten Ordenantzak nahiz langileen plantillaren ingurukoak onartzeko ere.

2. Administrazio-prozedura Estatuko legediak eraentzen du, eta, behar izanez gero, Autonomia Erkidegokoak.

Osoko Bilkurak administrazio-prozeduraren Ordenantza onartuko du legedia Udalaren beraren administrazio-antolakuntzaren berezitasunetara egokitzeko.

3. Nolanahi ere, udal egintzei eta erabakiei aurka egiteko araubidea apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bidez arautuko da.

BOSGARRENA:

Erregelamendu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera indargabetuta geratuko dira Udal Ordenantza eta Erregelamenduetan jasotako xedapen guztiak; hots, bertan ezarritakoaren aurkakoak direnak.

se adoptarán los acuerdos pertinentes, siendo de reiterar las cautelas que sobre el Servicio de Policía Municipal se contiene en el artículo 143.3.

CUARTA:

1. La estructura y organización de los servicios administrativos del Ayuntamiento corresponderá, con carácter general, al Alcalde, con el asesoramiento de la Comisión de Gobierno.

No obstante, el Pleno ostenta las atribuciones que le otorgan los artículos 22 y 47 de la Ley 7/1985 en orden a la creación de órganos desconcentrados, aprobación de las formas de gestión de Servicios y aprobación de las Ordenanzas reguladoras de cada uno de ellos, así como las relativas a las plantillas del personal.

2. El procedimiento administrativo se rige por la legislación del Estado y, en su caso, la de la Comunidad Autónoma.

El Pleno aprobará una Ordenanza de procedimiento administrativo para adaptar dicha legislación a las peculiaridades de la organización administrativa propia del Ayuntamiento.

3. En todo caso, el régimen de impugnación de actos y acuerdos municipales será el regulado por la Ley 7/1985, de 2 de abril.

QUINTA:

Desde la fecha de entrada en vigor del presente Reglamento quedan derogadas todas las disposiciones contenidas en Ordenanzas y Reglamentos Municipales que se opongan a lo dispuesto en el mismo.

Halaber, indarrrik gabe geratuko dira Erregelamendu honetan ezarritakoarekin bateraezinak diren akordio guztiak, bereziki, funtzioak ordezkatzearen inguruan bertan agertzen diren arauei dagokienean.

AZKEN XEDAPENA

BAKARRA:

Erregelamendua indarrean sartuko da Probintziako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo hamaseigarren egun baliodunean.

DILIGENTZIA: 1986-12-23ko Erregelamendu Organikoaren (1987-02-12ko BAOren Eranskinean argitaratua) 7.3 eta 72.1 artikulua aldatu egin dira Osoko Bilkurak 1988-02-26an (hasiera batean) eta 1987-11-30ean (behin betiko) hartutako erabakien bitartez. Horrela, aipatu artikulua osorik argitaratu dira 1988ko apirilaren 2ko BAO (76. zk.).

Getxon, 1988ko apirilaren 20an
IDAZKARIA

Quedar igualmente sin efecto todos los acuerdos que resulten incompatibles con lo que en este Reglamento se dispone, en particular por lo que se refiere a las normas que el mismo contiene en materia de delegación de funciones.

DISPOSICIÓN FINAL

UNICA:

El presente Reglamento entrará en vigor el decimosexto día hábil siguiente a su completa publicación en el Boletín Oficial de la Provincia.

DILIGENCIA: Se extiende para hacer constar que el Reglamento Orgánico de fecha 23-12-86, publicado en el Anexo al B.O.B. de 12-2-87, ha sido modificado en sus artículos 7.3 y 72.1 por acuerdos plenarios de fechas 26-2-88 (inicialmente) y 30-11-87 (definitivamente), habiéndose publicado íntegramente la redacción de los mencionados artículos en el B.O.Bo. nº 76 de fecha 2 de abril de 1.988.

Getxo, 20 de abril de 1.988
EL SECRETARIO